

BERTSOLARIEN HITZAK

2021eko udan

AURREKARIAK

Euskal kulturgintzan lan baldintzen kaskartzea eta ziurgabetasuna nagusitzen ari zirela sumatuta, 2019ko maiatzaren 25ean bildu ziren sektore horretako hainbat langile autonomo, LANARTEA ekimenaren talde eragilearen eskariz. Bilera hartan izan ziren bertsogintzaren ordezkariak ere. 29 ziren orduan bertsolari autonomoak (plazan gehien zebiltzanak), ia denek bi lan edo gehiago uztartzen zituzten, eta epigrafe ezberdinetan izen emanda fakturatzen zituzten lanok: itzultzaile eta interprete; abeslari; sormen artistikoa eta literarioa; musika jarduerak; *besteak*, eta honen barruan bertsolari eta sormen erredaktore...

2019an, 1.642 izan ziren Euskal Herrian bertsogintzaren saioak. Hiru kontratazio modu nagusi erabili ziren saiootan:

1. Lanku S.L.-ren bitartez: bertsolaria gizarte segurantza eta lan sailaren betebeharrak eginda kontratatzen da. Mailakatuta daude bertan bertsolariak (hiru maila, bakoitza bere tarifarekin), bertsolari bakoitzak erabakitzen du zein mailatan egon. Lanku bitartekari den bertso-saio guztietan %21-eko BEZa aplikatzen da.

2. Bertsolari autonomoen bitartez: Bertsolarien jarduna BEZetik salbuetsita dago (baina bateko eta besteko ogasun ikuskarien interpretazio ezberdinak eta inspektzioak gertatu izan dira).

3. Erregularizatuta ez dauden kontratazioak: autonomo ez direnak kontratatzeko, Lanku bidez da aukera bakarra, eta horrek BEZ-aren %21eko eransten dio gastuari. Antolatzaile askorentzat asko garestitzen da ekitaldiaren antolaketa eta beltzean ordaindu nahi izaten dute jarduna; jardun puntuala egin ezker, autonomo izan gabe faktura egiteko aukera dagoen edo ez, ez dago garbi.

“Pandemiaren etenera arte, merkatua-plaza duela 20 urte baino dezente saio gehiagorekin geneukan, jende gehiagorentzako lan eta diru mugimenduarekin. Azken pospasei urteak arte, gutxiago ginen merkatu zati handiena hartzen genuenak. Orain, jende gehiago gara, emakumeak barne, eta lehen bertsolariren batek urtean 200 saio egiten bazituen, dezente aldatu da. Lehen ez genuen ezetzik esaten deitzen zigutenean”. Horretan zen panorama pandemia etorri zenean. “Asko zabaldu da bertsolarion taldea. Apustu eksklusiboa eginez gero bertsoen alde, asko konplikatu da, lehia areagotu delako”. Horrek ekarri du beste hainbat diziplinatan ere aipatzen den fenomeno: “Lan mordoa hartzen duzu badaezpada, ez dakizulako zer etorriko den gero. Horrek lan karga handia dakar batzutan, eta estresa ere bai. Beraz, zuloak estaltzeko lain bai, baina ezin ailegatuta eta kezka beteta egiten duzu lan. Hain ezegonkorra eta aldakorra da hilabeteka gure errealitatea, ez dakizu zentzuduna den, eskubidea ote daukazu, lan jakin bati uko egitea”.

Baietzak, ezetzak, estresak, txaloak, denak eten ziren osasun larrialdiarekin batera, eta, ezarri diren neurrien ondorioz, gaurdaino luzatu da ia-ia eten hori herrigintzarekin lotura zuen zirkuituan. Eusko Jaurlaritzak kulturgileentzat diseinatutako diru laguntzen lehen deialdian, bertsolari ugari laguntzak jaso gabe geratu zen, beren kasuistika berezia ez zutelako kontuan hartu. Sintomatikotzat jo dute bertsolari batzuek.

Horiek guztiak gertatu bitartean, LANARTEA Euskararen Langile Profesionalen Elkarteak 2020ko ekainean erregistratu zuten Eusko Jaurlaritzaren elkartearen erregistroan.

2021eko udaberrian, Bertsozale Elkartearekin harremanetan jarri zen, bertsogintzaren egoeraren berri eguneratua jaso asmoz; aldi berean, bertsolarien artean iritzi bilketa bat egitea erabaki zuen. 2021eko ekain-abuztua hiruhilekoan, 17 bertsolari elkarrizketatu zituen, gehien-gehienak autonomoak. Eurekin hitz egindakoen sintesi bat da segidakoa; eurek eta lankide dituztenek lan marko bizigarriago bat eraikitzen hasteko ekarpen xume bat.

--

TARIFAK

Diruaz hitz egiteko zailtasunak: *“Jendea konbentzitura dago izugarrizko dirutzak jasotzen ditugula eta primeran bizi garela. Eta hori esaten digun jende asko ez litzateke gauza guk irabazten dugunarekin bere bizi mailari eusteko”*. Non jartzen den ongizatearen eta bizi mailaren langa, hortxe kokka. Bertsolari ia denak gazterik hasi ziren bertso saioengatik kobratzen. *“Nik bertsoetatik bizi nahi nuen, nahiz eta lagunek baino diru gutxiago kobratu”*; *“nik bertsolari eta sortzaile izateko hautua egin nuenean, nahiko garbi neukan bide hori ez zela oso egonkorra, eta halaxe onartu nuen”*... Bertsoetatik bakarrik bizi ahal izatea ia ezinezkoa da gaur egun. *“Euskal kulturaren militantzia eta lana nahasten diren eremuetatik etortzen zaigu lana batez ere”*. Hau da, prekarizatuta dauden euskarazko beste sormen diziplinetan murgildu dira bertsolari gehienak azken urteotan. *“Nik beti izan dut argi ez dudala bertsoetan bakarrik aritu nahi, baina orain argi daukat bertsoetan bakarrik aritu nahiko banu ezingo nukeela”*. Bertsoa ez den arloak salbatu ditu asko, hain zuzen ere, pandemian: *“Gure lanaren mahaiak hanka diferentek izateak on egin digu, kasu honetan”*.

Beterano zein gazte, bere lanaren balioa eurotara ekartzea zail egiten zaio bertsolariari. *“Diruaz hitz egiteko tabu moduko bat dago oraindik ere”*. Horrek dakar, besteak beste, zenbat kobratuko duen jakin gabe joatea kantatzera; norbere tarifak merketzera (*“galdetzen badidate zenbat kobratzen dudana, batzuetan lotsa puntua ematen dit, eta dena baino gutxiago dela esaten dut”*); norbere lanaren balioa gutxiestera. Hau

guztia, musutruk kantatzeko ere prest dagoen kulturgile multzo batean: *“Ez dut ezagutu bertsolaririk diru ezagatik edo gutxiagatik joateari utzi dionik”*.

Egoera ez da beti oraingoa bezalakoa izan. Egun beterano direnak hasi ziren garaian, denek berdin kobratzen zuten saioko, eta gaur egun baino dezente gehiago, proportzioan: *“Kobranta normala gehiagotan izaten da orain, baina ni irabazia nago 16 urterekin 35.000 pezeta. Hori 210 euro dela esango nuke, Lankutik egun kobratzen dudanaren bueltan”*. Gazteagoak direnek ez dute ezagutu oparotasun hori: *“Gu 2008ko krisi garaian sartu ginen eta aurrekontuak asko jaitsi dira, eta oso diferente bizi dugu plaza”*. Prozesu horretan, Lankuren ekarpena onuragarri ikusten da: burokrasia lan asko kentzen die eta autonomo ez diren bertsolariei fakturatzeko aukera ematen die. Zenbaitek ñabardura ere egiten du, baina: *“Tarifa mailaketari buruzko gogoeta zorrotza egin behar litzateke”*.

Zuri eta beltz: Kobratzeko kopuruetan bakarrik ez, kobratzeko moduetan ere aldaketa handia gertatu da urteekin. Bertsolariak ia erabat beltzean aritzen ziren 1980-1990ko urteetan: *“Duela 35 urte %90 beltzean zen. Gaur egun, %10 izango da beltzean egiten duguna”*. Azken bi hamarkadetan, zirkuitu ez-arautua pisua galtzen joan da bertsolari autonomoen diru sarreretan, garrantzitsua izaten segitzen duen arren. Lankuren sorrerak izan du eragina horretan, baina ez horrek bakarrik: *“Orain dela 20 urte gure jardun fuerteak ekain-uztail-abuztuan ziren, herrietako batzordeek, mutil-ardoek eta halakoek pagatzen zigutelako. Orain ez, orain erakundeetatik zuzen samarrean dator dirua”*. Hala, azken 10 urteetan, urteko azken lau-hilekoak pisu handia hartu du bertsolarien agendan, instituzioek-eta beren sosak bideratzen dituzten bolada horixe baita.

Nolabaiteko instituzionalizazio horrek ez du tarifen hobetzea ekarri, baina, inolaz ere. *“Ni bertsoan hasi nintzenean, lauzpabost saio egin eta 800-900 euro irabazten nituen hilean, eta horri esker ez neukan 8 orduko lan bat hartu beharrik irauteko. Halaxe hasi nintzen pentsatzen bertsoari eskaini diezazkiola nire orduak. Hori gaur ezinezkoa da. Gaur egun zailagoa da honetara jartzen hastea, nire garaian baino, saio kopuru bera eginda ere irabazi tarte txikiagoa delako”*. Tarifa orokorrak igotzeko aukerarekiko uzkur ageri dira

gehienak, hala ere, ekosistema zarta daitekeela uste baitute; ahal ekonomiko altua duten kontratatzaileei tarifa altuagoak ezartzearen alde ageri dira, aldi berean. Asko, gutxi ala zero euro igo, tarifa bateratu bat izatearen garrantzia azpimarratu dute denek: *“Bilera bat egin zen eta 220ko erreferentzia jartzen dugu orain. Uste dut horrek eman digula babes bat, gero jendeak hori ez kobratu arren, berez zenbat den esan ahal izateko”*.

Autonomo: Egoeraren bilakaerak autonomo egiteko erabakia hartzera ekarri du bertsolari zenbait. *“Autonomo izateak indibidualki ere fakturak egiteko bidea ematen zigun. Bertsotarako bakarrik ez nintzateke autonomo egingo, hala ere, ziurrenik”*. Autonomo figurak ere bere morrontzak baititu: *“Autonomo izatea baldin bada modu bakarra duinki kobratzeko, horrek saio asko egitera behartzen zaitu, eta hori gutxitan pasatzen da. Hor tarteko zerbait bilatu beharra dago”*. Tarteko zerbait hori bilatu bitartean, hilero ia 300 euroko kuota ordaintzen dute autonomoek (lehen bi urteetan askoz merkeagoa da kuota). Horrek gastu finko bat suposatzen die, diru sarrerarik ez daukaten hilabeteetan ere.

--

ZERGAK, TRAMITEAK, PAPERAK

Marko desegokia: Euren jardunaren ezaugarri espezifikoak kontuan hartzen ez dituzten araudien menpe sentitzen dira bertsolariak: *“Markoak ez du kontenplazten gure errealitatea, eta askotan ibiltzen gara aldrebes, nahi gabe ere”*. Araudiaren kalteen adibide da jendeak fakturatzeko gero eta arazo gehiago edukitzea. *“Autonomoak eta ez autonomoak elkarrekin aritzen gara kantuan, eta batzuek ezin dute fakturarik egin, udaletxeak edo dena delako antolatzaileak gero eta gehiago eskatzen dutelako. Horrek gero eta arazo gehiago sortzen du. Zailtasun bat da jende horri egun bateko alta ematea. Desoreka sor dezake horrek, antolatzaileek autonomoei bakarrik deitzarainokoa”*. Belaunaldi berriei ziurkuituan sartzea zailtzarainokoa.

Zirkuituan denbora daramatenek ere izaten dituzte arazoak fakturazioarekin: *“Duela hainbat hilabete, BEZa aurkeztu zuen nire asesoreak, eta erreklamoak egin zioten, BEZik gabe fakturatzeko ari nintzela esanda. Lau urteko BEZa kobratzeko mehatxua egin zidaten. Susto ederra hartu nuen”*. Bat-bateko bertsogintza ez zuen sormen lantzat hartzen ikuskariak, interpretaziotzat baizik; eta sormen lanak ez bezalaa, interpretazioak BEZa dauka. Zorionez, auzia ez zen gehiagora joan. *“Argi eduki behar dugu inspektoreak beti ez daukala arrazoa. Inspektorearekin ez bazara ados jartzen, epailearengana joan zaitezke. Gure irizpidea defenditzera ailegatu behar genuke, gure burua defenditu dezakegun marko bat edukitzera. Orain indefentsio egoeran gaude”*.

Hori nahikoa ez, eta zentzugabetzat dauzkaten aginduak betearazten dizkiete askotan kontratatzaile publikoek, lana kobratu nahi badute. Eta EITBk, *autonomo faltsuak* darabiltza bere programazioa kolaborazioekin betetzeko, eta programa gehienak azpi-kontratatzen ditu. Bertsolari asko ari da EITBrentzeko lanak egiten, tarteka. *“EITBk bere aldeko militantzia egitea eskatzen digu”*. TicketBAI dator orain, gainera, fakturazio elektronikoa derrigortzera.

Aholkularitza: *“Zergen kontua ordenatzea eta aholkularitza zerbitzu espezialdu bat edukitzea oso ondo ikusiko nuke. Formakuntza eskaintzea ere bai”*. Gizarte segurantzaren, ogasun eta lan arloko tramiteak aipatu orduko, *estresa* eta *ezjakintasuna* hitzak ahoskatzen dira. *“Gaur egun lau bider egin behar dut nik errenta aitorpena. Batetik, urduri jartzen naiz oraindik ere; bestetik, asesoriari pagatu behar diot”*. Bakarren batzuek beren kabuz egiten dituzte tramite horiek, baina gehien-gehienek aholkulari profesionalengana jotzen dute, lasaitasunean irabazte aldera, eta gastu gehiago da hori. Aholkulariek beraiek ere, ordea, askotan ez dakite zer aholku eman. *“Inspekzio pare bat izan dut aurreko urteetan”*. Lasaitasun erlatiboa dakar asesoriarengana jotzeak, beraz. Epigrafe propiorik ez edukitzeak ez du laguntzen batera horrelako zalantzak argitzen. *“Ezin dugu lasai aritu? Ematen du lapurretan ari garela. Hitzaldiak, mahai-inguruak, aurkezpenak... denetarik ari gara egiten, eta dena da zoratzekoa”*. Zenbaiten ustez, bertsolariak beraiek ere ez dira gehiegi arduratu

halako kontuetaz, eta hori beren kalterako da. *“Praxi onaren gida ondo etor daiteke horretarako”*.

--

ARTISTAREN ESTATUSA

Euskal Artistaren Estatutua: Sortzaile guztiak ahalik eta gehien kohesionatzea eta sortzaileon eskakizunak bilduko dituen proposamen indartsua artikulatzeko beharra ikusten da. *“Eroriz gero eutsi eta jaiki zaitezten”*, sare funtzioa egingo duen euskarri bat behar da, euskarazko sortzaile eta interpretarien egoerari erantzungo diena: *“Edukiontzi formako estatutu bat behar dugu, gauza ezberdin asko kontuan hartuko dituen. Deusetik sortu behar badugu, hibrido bat sortuko nuke, bateko eta besteko ereduak aztertuta”*.

Edukiontzia betetzen hasteko, diziplina ezberdinetako langileek elkarren berri jasotzea garrantzitsua da. *“Elkartasunik eza dakar egungo egoerak, eta errezeloak. Gure kultur munduak gutxienez izan behar luke artistari ondo bizitzeko aukera emateko tarteak. Hippiak izateko ere gaizki gabiltza, baina. Frantzian, esaterako, juxtu biziko direla jakinik ere, badakite hortik bizi ahalko direla”*. Frantziako intermitentzia sistema behin eta berriro agertu da solasaldietan, baiki. Sistema hori idealizatuta dagoela esateko bada ere, zenbaiten kasuan: *“Intermitentzia ez da lan erregimen bat, laguntza sistema bat baizik. Baditut lagun musikariak intermitentzian. Gutxieneko saio kopuru bat egin behar duzu urtero lanik ez daukazunean laguntza kutxako dirua jaso ahal izateko, eta beti daude tentsioan”*.

Frantzian bada beste figura bat ere: *auto-entrepreneur* delakoa. 30.000-35.000 euroko langa gainditu artean, hileroko kuota ordaindu beharrik ez dauka lan erregimen horretan ari denak. *“Lan egindakoagatik ordaintzen dut. Alde bat dago: Lankutik pasatzen dizkidaten fakturen atxikipena %15etik %22ra igo da. Lankutik gutxiago kobratzen dut, beraz, baina ez daukat ia 300 euro pagatu beharrik hileroko”*. Espainian iragarria duten

Artistaren Estatutuak ere badu pixka bat hortik: *“Autonomoen kasuan zergak eta kotizazioak irabazien arabera jarri behar ote dituzten han... Interesgarria izan daiteke”.*

Euskal Herriko Artistaren Estatutuaren eduki hipotetikoaz galdetutakoan, besteak beste, epigrafe eta zerga kontuetan joko arauak garbi uztea aipatu dute. Erretiroa ere hizpide izan dute: *“Bizitzeko juxtu ematen duten eta betiko ez diren jardun batzuetan ari gara. Nik garbi daukat ez zaizkidala 20 urte geratzen bertsotan. Ez, behintzat, horrela bizitzeko bertsotatik”.* Euren jubilazioa irudikatzen hasiak dira bertsolari batzuk, dagoeneko jubilatuta daudenen egoera gogoan. *“Ez da posible Amuriza-eta dauden bezala egotea”.* Aho batez diote denek. Egoera hori aldatzeko proposamen bat ondu behar da. *“Nik ez dut pentsio fondo bat kontratatu nahi. Artistaren estatutu bat onduko badugu, pentsatu behar dugu erretiroan sare publikoak gutxieneko pentsio bat nola eskaini behar duen”.*

Ondu beharreko gizarte segurantzaren arloko beste prestazio batzuk ere nabarmendu dira: bajak, baimenak, formakuntzarako tarteak hartu ahal izatea eta hartutako tarteak lanaren partetzat joak izatea... *“Kuota garestia ordaintzen dugu Hegoaldean, eta horrek ez digu inolako egonkortasunik ematen”.* Erakundeekiko harremanetan indar korrelazioa aldatzea ere beharrezko ikusten dute: *“Nik egindako faktura baten PFEZaren ordainketa nire gain uzten du egun legediak, eta ez dauka inolako zentzurik. Ni ezin naiz izan erantzulea Bilboko Udalak nire lanaren PFEZa ordaindu gabe uzten badu”.* Udaletxeak, behin eta berriro agertu diren entitateak: *“Nik uste dut udaletxeak asko aprobetxatu izan direla egoera honetaz. Eman diete betiko diru kopuru bera jai batzordeetakoiei eta esan erdi beltzean egiteko, eurek BEZa, PFEZa eta antzekoak ez pagatu behar izateko. Ni prest nago jai batzorde bati aurpegia ateratzeko, baina udalari ez. Mixeria horietara ailegatu gara”.*

Kontziliazioa: *“Kontziliazioa da gehien kezkatzen nauen gaia”.* Ama den bertsolari batek. *“Lehen ez zegoen ama bertsolaririk. Kontziliazioa oso zaila da zenbait gauzetan. Umearen lehen bi urteetan, batez ere”.* Ama den beste bertsolari batek. Gehiago ere izan dira bertso jarduna eta umeen zaintza uztartzeko zailtasuna mahai gainean jarri dutenak. Kontziliazioaz mintzatu dira aitatasun baimena hartu dutenak ere. Baimen horien

iraupenari erreparatu diote batzuek, ama izan direnak azkarrago bueltatu direlako lanera azkenadian aita izan direnak baino: *“Zer pentsatua ematen du horrek. Gizonok baino babes sare ahulagoa ez ote daukaten...”*.

Pandemiak, alde horretatik, mesede egin die zaintzan ari zirenei, ordutegiak asko aurreratu direlako. *“Gaueko jaialdiak, bertso afariak, erori egin ziren. Hor badago lan bat egiteko, handia. Jaialdiak ondo pagatuta daude, baina bertso afari eta bazkariak luze jotzen dute, eta umeak zaintzeko norbaiti ordaindu behar badiozu, dirua galtzen duzu”*. Gai hori nahiko berria da bertso munduan. Ama izan eta gero, bertsolariek utzi egiten zuten lehen, eta orain ez. *“Autonomo izatea eta dauzkagun prestazio sozialen arloan, amatasunaren kasuan esaterako, plazatik desagertzeko beldurrak badu pisua”*.

--

EUSKARAREN ETA KULTURAREN ESTATUSA

“Euskararen langile profesionalak ari gara, eta ideologikoki inportantea iruditzen zait oso LANARTEAK hor jartzea ardatza. Inor kanpo uzteko ez, baizik eta sartu nahi duenak ondo pentsa dezan, denok sumatzen dugulako orain badela olatu bat dioena igual-edo dela euskaraz edo erdaraz egin”. Erakunde publikoek beraien kultur politikekin sustatu duten planteamendua da hori, neurri batean, diru laguntzetatik hizkuntzaren aldagaia ezabatzeko apustua egin baitute. *“Euskarazkoei gehiago laguntzen hasiz gero, azalpenak eman beharko lituzkete, eta ez dute nahi”*. Horregatik da inportantea euskarazko kulturaren egoera mahai gainean jartzea, bere balio eta zailtasun erantsiak nabarmentzea. *“Sinetsi da guk bizirauteko eskubidea bakarrik daukagula, ez duin bizitzekoa”*. Bertsolariak euskal kultur sistemako parte sentitzen dira eta beren kultur gile rola aldarrikatzen dute.

“Euskara punka zelako kantatzen zuten euskaraz duela hamarkadak. Gaur egun, punka da euskaldunoi egurra ematea”. Duela 50 urteko eztabaidetara ari gara itzultzen, azken batean. *“Gu ez gara anekdota bat. Gure lana beste edozein sortzailerarenaren parekotzat hartu behar da, eta hori ez zaigu aitortzen beti. Badirudi badirela artistak,*

'benetakoak', eta gero gu. Euskararen kuota betetzeko besterik ez gaituzte nahi batzuek". Zenbaiten ustez, ikuskera hori indartzen duen faktore bat bada: lehiak bertsolaritzan duen zentralitatea: *"Txapelketen arabera antolatuta egoteak gauza asko ematen dizkio bertso munduari ikusgarritasun, euskalgintza eta herrigintza aldetik, baina kendu egiten dio lan baldintzen aldetik eta arte izaeratik... Kirola da gehiago jardun artistikoa baino, darabilgun hizkera horren erakusle da, eta hori izan da bere identitatearen ezaugarri nagusietako bat*". Azken urteetan bertsolaritza eredu klasikotik kanpo egin diren saiakerak eta formula berrien proposamena, kontrara, izaera artistikoan azpimarra jartzeko modu interesgarritzat jotzen dira.

--

PANDEMIAREN ARRASTOA

1. Bertso jardunaren erabateko instituzionalizazioa.

"Nire saioen erdia Lankutik dator normalean. Pandemiarekin, gehiago izan dira proportzioan, zirkuitu ez ofiziala erori egin delako. Soziedadeak, konpartxak, txosnak, auzo txikietako mundugintza... hilda daude. Dena da arautua". Hitz ezberdinekin bada ere, antzeko mezua darabilte gehienek. Eta kezka handia erakutsi dute guztiek zirkuitu ez-arautua berreskuratzeko aukeren inguruan, ezinbesteko osagarritzat daukatelako bertsolaritzaren eta euskal kultur ekosistemaren iraupenerako.

2. Kontzientzia hartzea.

Batek: *"Beti pentsatu izan dut pribilegiatuak garela honetatik eta honela bizi izanagatik. Ez dut sekula izan prekaritatearen kontzientziarik, pandemia iritsi den arte*". Besteak: *"Nik ez dut pribilegiatu sentitu nahi. Nik hau ikasi nuen eta urteak daramatzat lan honetan. Sekula ez dut dirua eskatzeko konplejurik izan. Lan exigentea da, gainera, ez da erraza*". Hirugarrenak: *"Nik lehenengo urteetan kristoren konplejua neukan diruarekin. Iruditzen zaitzaidan piloa irabazten genuela. Baina ikasi dut beste bizi hautu batzurekin*

diru kopuru horrexek berak ez duela berdin balio. Umeak edukitzea erabaki duten lagunak juxtu ibiltzen dira, esaterako, aldiro”.

Prekario, mileurista eta antzeko hitzak kontu handiz erabili behar direla nabarmendu dute bertsolari gehienek. “Beste batzurekin alderatuta, lotsa ematen dit prekarioa naizela esateak”. Pandemiak lotsa hori arrakalatu du, baina, neurri batean: “Gu, uste genuenak kobratzen genuena justua zela, ‘gutxi eta maiz’ filosofiarekin eta edozeinen eskura egoteak ematen digun satisfazioarekin, pandemiak astindu gaitu eta batek dio: justua bakarrik ez, juxtua ere bada gurea, saiorik eta inolako prestaziorik gabe geratu garelako. Niri burura datorkit orain: eta ahotsa joaten bazait momenturen batean? Edo beste zer bait gertatzen bazait? Orain arte ez nuen horretan pentsatu”.

Ofiziala da: pandemiak ekarri duen etenarekin hartu du askok bere egonkortasun eta babes faltaren kontzientzia. *“Dozenaka saio nituen lotuta hilabete haietan, eta antolatzaileek ez zeukaten inolako konpromisorik gurekiko. Erabat zintzilik geunden. Hori nolabait kubritua balego, seguro edo antzeko zerbaitekin, alde ederra”.* Zintzilik sentitzeko beste modu bat: *“Ni oraintxe konturatu naiz eskegita gaudela. Nik ezin dut pentsatu ere egin ez hipoteka batean sartzea, ez umerik ekartzea, ez bestelako inbertsiorik egitea”.* Zintzilikatze maila ez da dirutan bakarrik neurtzen, gainera: *“Arazoa ez da hainbeste ekonomikoa, zenbat diru aterako duzun. Inongo aurreikuspenik ezin duzula egin, hori da arazo nagusia”.* Pandemia aurretik urtean 180 saio egiten zituena ere ziurgabetasun horren hariarekin kulunkan bizi zen.

Pandemiak errealitate bihurtu du, azken batean, bertsolarien amesgaiztorik errekkurrenteena: plazarik gabe geratu dira. *“Oso sartuta dago ez bazara ari desagertu eta herdoildu egingo zarela segituan. Idazle batek ez badu liburu bat argitaratzen lau urtean, baina, inork ez dio idazle titulua kentzen. Zergatik bertsolariari bai?”.*

--

EPILOGOA

Bertsolariei elkarrizketak egin bitartean, idazle, itzultzaile eta bertsolari elkarteak deitu zituen LANARTEAK, kasuistika eta arazo asko partekatzen zituztela ikusita. 2021eko uztailaren 22an egin zuen lehen bilera EIE (Euskal Idazleen Elkarte), EIZIE (Euskal Itzultzaile eta Interpretarien Elkarte), Galtzagorri (haur literatura elkarte) eta Bertsozale Elkartearekin. Fiskalitate arazo komunei erantzuteko neurri batzuk adostu dituzte ordutik elkarteok, “euskal literatur sortzaileak” kontzeptupean bilduz denak. Kontzeptu hori ogasunetan onartuko balute, bertsolariak idazle epigrafean sartuko lirateke, ahozko literatura egiten duten aldetik -akademikoki erabat teorizatutako eta onartutako genero bat da-, eta epigrafegabeziaren arazoa konponduko litzateke neurri handi batean.

Fiskalitate arloko lege berriak abiarazteko zailtasunen jakitun, legeen interpretazioa aldatzeko proposamen bat ondu da lehenik eta behin, Hego Euskal Herriko lau ogasunetara aurkezteko. Helburua: burokrazia eta fiskalitate ezagutzen beharra murriztea sortzaileei. Bi puntu zehatz hauek adostu dira:

1. “Aktibitate osagarri” kontzeptua erabiltzea.

BEZaren salbuespena arautzen duen epigrafean ogasun ezberdinek irizpide bezala onartuko balute sortzaile literarioek egiten dituzten gainerako aktibitateak ((hitzaldiak, itzulpenak, mahai-inguruak...)) *aktibitate osagarri* direla, aktibitateok **BEZa ordaintzetik salbuetsiak** geratuko lirateke. Euskal literatur sortzaileen aktibitate ekonomikoen zenbatekoa kontuan hartuta, ogasunei oso diru galera txikia ekarriko lieke aldaketak, baina aurrerapauso handia litzateke sortzaileontzako, eta, ondorioz, kultur sistema osoarentzako.

2. Kopuru baterainoko diru sarrerak IAEn alta eman gabe eta fakturatu beharrik gabe kobratu ahal izatea.

BEZaren inguruko arazoei TICKET BAI sistemarenak gehituko zaizkie orain. Oso zaila izango da sortzaileak sistema horretara egokitzea. Biziraupenerako urrats handia litzateke literatur sortzaileentzat irizpide orokor hau ezartzea: Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarainoko urteko diru sarrera profesionalak errenta aitorpenean deklaratzeko, Jarduera

BERTSOLARIEN HITZAK. 2021eko udan

Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman eta fakturazio sistematik erabili beharrik gabe. Ogasunek diru sarrera berdinak izango lituzkete, baina burokrazia eta fiskalitate ezagutzen beharra asko murrizutko litzateke sortzaileentzat.

Neurriok aurkeztuak dizkio LANARTEAK Eusko Jaurlaritzari, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ogasunen aurrean babes ditzan.

PS: Eusko Jaurlaritzak azarorako agindu zuen gure proposamenari baiezkotza ala ezezko erantzuna ematea. Azaroa bukatu zenean, erantzunik eman gabe zegoen.